



Arartekoaren ebazpena, 2011ko azaroaren 30ekoa. Horren bidez, Getxoko telefonia mugikorreko antena bati buruzko informazio eskaera bati ez erantzuteagatik aurkeztutako kexa-idazki bat amaitutzat jo da.

Aurrekariak

1. Pertsona batek erakunde honetara jo du Getxoko Udalak ez diolako informazio eskaera bati erantzun. Eskaera Getxoko (...) kaleko (...). zenbakian kokatutako telefonia mugikor baten instalazio espediente bati buruzkoa zen.

Erreklamatzailleak idazki bat aurkeztu zuen 2009ko urriaren 24an aipatutako helbidean dagoen eraikinaren estalkian telefoniako estazio base bat instalatzeko espedientea ikusi nahi zuela eskatzeko. Idazki horretan kezkatuta zegoela adierazi zuen, inguruko auzotarren osasunean eragin negatiboa izan dezakeelako, era horretako instalazioek sortu ohi duten kutsadura elektromagnetikoaren ondorioz. Horrez gain, interesduntzat jotzeko eskatu zuen, horren inguruan eman diren ebazpen guztiak ezagutze aldera.

Lehenengo idazki baten bidez, 2009ko azaroaren 13koa hain zuzen, Getxoko Udalak beste helbide batean (... kalea, ...) kokatuta dagoen telefonia mugikorreko estazio base bati buruzko informazioa eman zion. Kasu horretan, jarduera eta egokitzapen lanen lizentzia emateko udalaren ebazpenaren gaineko informazioa bidali zion. Instalazioaren ezaugarri teknikoaren inguruko informazioari dagokionez, udaleko bulegoetan kontsulta egiteko aukera aipatzen zen.

Bidali zioten informazioan zegoen akatsa antzeman ostean, erreklamatzailleak, 2009ko abenduaren 29an, (...) kaleko (...). zenbakiko instalazioa ikusteko eskaera berri bat egin zuen, aurreko idazkiko termino berdinetan.

2. Eskaera egin eta zenbait hilabete pasa eta gero, 2010eko ekainean, erreklamatzailleak erakunde honetara jo zuen espedientea ikusteko egindako eskaerak erantzunik jaso ez zuela salatzen.
3. Erreklamazio horri erantzunez, Ararteko erakundeak informazioa eskatu zion Getxoko Udalarari (...) kaleko (...). zenbakian dagoen telefonia mugikorreko antenaren instalazioari buruzko espedientea ikusteko eskaerari eman zioten





erantzuna ezagutze aldera. Era berean, jarraitutako administrazio espedienteari buruzko informazioa eta ezarrita dauden neurri zuzentzaileak bete direla egiaztatzen duen agiria eskatu genuen, zehazki, 1066/2001 EDan xedatutako baldintzak betetzen direla justifikatu zezaten, Getxon telefonia mugikorreko estazio baseak instalatzeko eta funtzionatzeko baldintzak arautzen dituen ordenantzari jarraiki.

Lehenengo eskaera 2010eko ekainaren 28an egin zen. Ondoren, 2010eko irailaren 3an errekerimendua bidali genuen.

Erantzunik egon ez zenez, 2011ko uztailaren 26ean Ararteko erakundeak udalari eskatutako informazioa bidaltzeko legezko betebeharraren berri eman zion.

4. Azkenik, 2011ko azaroaren 10ean erakunde honek espedientearen gaineko zerbitzu teknikoaren arloko txosten bat jaso zuen. Idazki horretan telefonia estazioaren instalazioari buruzko espedientearen gaur egungo egoera azaltzen da. Telefonia mugikorreko estazioak obren lizentzia dauka, 1997ko ekainaren 6ko dekretuaren bitartez emandakoa. 2008ko apirilaren 2an enpresa sustatzaileak instalazio hori Getxon telefonia mugikorreko estazioak ezartzeko baldintzak arautzen dituen ordenantzari jarraiki egokitzeko proiektu bat aurkeztu zuen. Informazio hori bidali zenean espediente hori izapidetze prozesuan zegoen.

Txostenak dio erreklamatzailerak udaleko bulegoetara jo dezakeela aipatutako espedientea ikusteko. 1066/2001 EDan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeari dagokionez, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak egindako instalazioa abian jartzeko baimena helarazi digu.

Hala ere, bidalitako informazioan ez da jaso erreklamatzailerak, egindako eskaerei erantzuna emate aldera, jarraitu diren izapidekin zerikusia duen beste administrazio jarduerarik.

Aurrekari horiek guztiak ikusirik, egokia iruditu zaigu aipatutako kexa-espedienteari buruzko zenbait gogoeta helaraztea, zehazki, erreklamazioak hizpide duen gaiaren ingurukoak:





Gogoetak

1. Lehenik eta behin, azpimarratu nahi dugu erakunde honen eskaera eta errekerimenduei erantzuna emateko Getxoko Udalaren atzerapena. Aipatu beharra dago 2011ko azaroaren 9an bidalitako erantzuna 16 hilabete baino gehiagoko atzerapenarekin heldu dela.

Ararteko erakundeak egin dituen eskaerak ez erantzutearen ondorioz, ezin izan ditugu gure eskumenak epe barruan eta modu eraginkorrean gauzatu. Inguruabar hori eta kexak ingurumenari buruzko informazio eskaera bati erantzunik eman ez izana hizpide zuela kontuan hartuta, aipatutako gaia administrazio horren ustezko funtzionamendu eskasaren ondoriozkoztat jo behar da, herritarrek tokiko administrazio horrekin dituzten harremanei dagokienez, bai eta erakunde honekin dituzten harremanei dagokienez ere.

2. . Esku artean dugun kasuak Getxoko Udalak telefonia mugikorreko instalazioen gainean egiten duen ingurumen kontrola dauka hizpide. Zehatz-mehatz, pertsona horrek udaleko espedientea ikusteko aukera mahaigaineratu du, irratifrekuentziako uhinen igortzeak egiaztatzeko eta horrek osasunean eduki ditzakeen ondorioak aztertzeko. Gai hori eremu elektromagnetikoen ingurumenean edo osasunean eduki ditzaketen ondorioei lotuta dago.

Zentzu horretan, zehaztu behar dugu telefonia mugikorreko instalazioen ingurumen kontrolak behar dituen agiriak eta txostenak ingurumen arloko informaziotzat jotzen direla, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 2.3. artikularekin bat eginez. Lege horrek, ingurumen arloari dagokionez, informazioa eskuratzeko, parte-hartze publikorako eta justizian parte hartzeko eskubideak arautzen ditu.

Eskubide horren edukiak zera hartzen du barne: eskaera jasotzen den unetik zenbatzen hasita, hilabeteko epean, informazioa jasotzea. Esku artean dugun kasuan, Getxoko Udalak ez du legean xedatutako epearen barruan erantzun. Gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeko eskubideari buruzko 6/2010 Gomendio Orokorrean ¹ azpimarratu genuen azkar erantzutea funtsezkoa dela; izan ere, eskubide hori herritarren parte hartzearen edo ingurumen arloko justizian parte hartzearen gaineko eskubideak gauzatzeko oinarritzkoa da.

¹ http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_2090_3.pdf



3. Udalaren erantzunean (...) kaleko (...). zenbakiko telefonia mugikorreko estazioaren inguruan eskatutako informazioa eman da eta dokumentazioa ikusteko udaleko bulegoetara joateko aukera mahaigaineratu da.

Ingurumen arloko informazioa eskuratzeko eskubideak gaineratzen du administrazioak informazioa eskatzaileak eskatutako formatuan bidali behar duela, salbuespenak salbu. Kasu honetan, informazioa posta bidez eskatu zen eta ez zen zehaztu erantzuna zein formatutan jaso nahi zen.

Hortaz, kasu horietan, administrazioak eskatzaileak erabili duen modu bera erabili behar du informazioa bidaltzeko; hau da, eskatutako informazioa idatziz edo formatu digitalean bidali behar du.

Edonola ere, espedientearen gaineko informazioa eskatzeko idatziz egindako eskaera eta udaleko bulegoetan espedienteak zuzenean aztertzea prozedura desberdinak dira. Ulertzen dugu idatziz informazioa eskatzeko eskubidea administrazioaren bulegoetan erregistroak eta fitxategiak zuzenean aztertzeko eskubidearen osagarria dela.

Era berean, erreklamatzailerak egin zuen eskaerak barne hartzen zuen, espediente horretan, bera interesduntzat jotzea. Udalak bidalitako informazioa ikusita, ondorioztatu daiteke telefonia mugikorreko estazio basea egokitzeko espedientea ez dela amaitu.

Horri dagokionez, gogorarazi behar dugu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak ezartzen duela ingurumen arloko legerian xedatutakoa bete dadila exijitzeko ekintza publikoa erabili behar dela. Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak ere herritarren parte hartzearen gaineko printzipioa arautzeaz gain ondorengoak ere erregulatzen ditu: plangintzaren, gauzatzearen eta diziplinaren inguruko prozeduretan interesdun gisa jarduteko eskubidea, espedienteetan dagoen dokumentazioa eskuratzeko eskubidea, betiere, legerian ezarritako mugak aintzat hartuta eta hirigintzako legezkotasunaren alde defentsa publikoa gauzatzeko eskubidea.

Edonola ere, espedientearen interesduna izateak esan nahi du alderdi interesdunei dagozkion izapideen berri emateko betebeharra daukala, kasu bakoitzean burutu beharreko ekintzat eta errekurtsioak gauzatze aldera. Hala, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko





30/1992 Legeak interesdunei ingurumen arloko espedienteari buruzko ebazpenak eta administrazio egintzak jakinarazteko betebeharra ezarri du.

Kexagilearen erreklamazioa xedea ikusita eta aurreko ataletan azaldutako gogoetak kontuan harturik, honakoa jakinarazten dizugu:

Ondorioak

- Erakunde honek Getxoko Udalaren lankidetzara eskasa salatu behar du, 16 hilabete baino gehiago behar izan baititu eskatutako informazioa bidaltzeko eta, modu horretan, legebiltzarraren ordezkari garen aldetik daukagun eginkizuna modu eraginkorrean egitea galarazi digu.
- Ingurumen arloko informazioa eskuratzeko eskaerari dagokionez, Getxoko Udalarari gogorarazi behar diogu hilabeteko epean erantzuteko betebeharra, betiere, eskatzaileak aukeratu duen modua eta formatua erabiliz.
- Telefonia mugikorreko estazio basea egokitzeko espedienteari dagokionez, erreklamazioa interesduna dela aintzat hartu behar da, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa bete dadila.

